

# EUSKOTRENEK ASTEBURU HONETAN DONOSTIAN AUTOBUSEN ZERBITZUA ALDATUKO DU KIROL PROBAK DIRELA ETA

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotrenek, larunbatean, ekainaren 29an, eta igandean, ekainaren 30ean, UK09 eta UK11 Lurraldebusen Zumaia-Donostia autobus zerbitzua aldatuko du, Emakumeen Triatloia eta Donostiako Nazioarteko Triatloia dela eta.

Larunbatean zein igandean, Donostian zenbait geraleku kendu egingo dira, honako zirkulazioetan horiek guztiak Donostia jatorria izanik:

1. Larunbata, ekainak 29: UK09 linea, honako irteeretan 14:00etan, 15:00etan eta 16:00etan; UK11 linean, 14:00etan eta 16:00etan.
2. Igandea, ekainak 30: UK09 linea, honako irteeretan 9:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan; UK11 linea, 10:00etan eta 12:00etan.

Aipatutako egunetan eta orduetan, kendutako geralekuak honako hauek izango dira:

- UK09: Zumalakarregi, Magisteritza, Unibertsitatea, Ibaeta eta Errotaburu.
- UK11: Zumalakarregi, Magisteritza, Unibertsitatea eta Ibaeta.

Kontrako noranzkoan (sarrerak Donostian) ez dira aldaketarik egongo.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia, konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webgunea eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunea ere daukate.

Igorpen data: ostirala, 2019ko ekainaren 28a

*Euskadi, auzolana, bien común*

